

Lan deialdia:

Parte Hartze teknikaria Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan

ESKAINTZEN DA:

- Lanpostua **GASTEIZEN**, baina lan eremua Euskadi osoa izango da.
- Urtebeteko **jardunaldi osoko** lanaldia, luzatzeko aukerarekin.
- **Urtean 25.862,85€-ko** (soldata gordina).
- EGKren **barne hitzarmenak** araututako lanpostu bat eta **EGK-ko Batzorde Iraunkorraren** ardurapean.
- **Lantalde gazte eta dinamiko** batean parte hartzea.
- Gizarte eta politika publikoetan euskal gazteriaren **parte-hartzearen** alde lan egitea.

LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK:

- Lan arloari dagozkion **proiektuak** eta **ekimenak** diseinatu, aurrera eraman, **ebalatu** eta **koordinatzea**.
- Erakundearen lan arlo guztiekin **ekintzak** koordinatzea.
- Elkarre, eragile, talde eta gazte parte-hartzaileekin harreman zuzena mantentzea eta **parte-hartzearekin lotutako proiektu eta prozesuak** garatzea.
- Administrazioaren Gazte Planak eta **gazteria politikak** garatzeko prozesuetan **parte hartzea**.
- EGK-ko arlo teknikoetan **zeharkako gaien lanketa** sustatzea.
- **Erakunde Publikoekin bitartekaritza** eta **elkarlana** burutzea (Eusko Jaurlaritza, aldundiak, udalak, mankomunitateak eta beste edozein).
- **Gizarte eragileekin elkarlana** bultzatu eta garatzea eta EGKren materialaren mailegua koordinatzea.
- **Elkarre** eta **gazteek** garatzen dituzten **proiektuak/ekimenak** ezagutzea eta haietan parte-hartzea.
- Dagokionean **komunikabide** ezberdinetan adierazpenak eta analisiak egitea.

ESKATZEN DA:

- **30 urte baino gutxiago** izatea.
- Euskal **elkartegintzaren**, **gizarte mugimenduaren** eta **parte-hartze modu ezberdinen** errealitatearen **ezagutza** izatea.
- Gazteen, eta oro har, **gizartearen errealitatearen ezagutza** izatea.
- Parte-hartze prozesu, egitasmo eta esperientzia ezberdinak ezagutu eta beraietan parte hartu izana.
- **Euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiteko eta idazteko maila altua** (EGA, HABE 3...)

- **Gizarte arloko goi ikasketak** izatea, edo, beste esparruetako ikasketak izanda ere, gizarte gaitan espezializatu izana (bereziki parte hartzearekin lotutako ikasketa gehigarriak izatea).
- Gizarte ikerketarako **metodologiak** (kuantitatiboak zein kualitatiboak) ezagutzea eta aplikatzea.
- **Lan taldeak eta eztabaida taldeak dinamizatu eta koordinatzeko gaitasuna** eta esperientzia. Dinamika hauetatik ondorioak atera eta dokumentuetan islatzeko gaitasuna.
- **Malgutasuna:** ordutegi eta mugikortasun geografikoa.

BALORATUKO DA:

- **Lan taldean** aritzeko trebetasuna: malgua izatea, proaktibitatea eta **ardurak** hartzeko gaitasuna izatea.
- Ekimen propioak **autonomiaz** garatzeko gaitasuna.
- **Antolaketarako** gaitasuna.
- **Harremanetarako** gaitasuna.
- Hainbat eginbehar berean gauatzeko gaitasuna.
- Ingelesa eta beste hizkuntza batzuen ezagutza.
- Informatika-ofimatika eta datu esplotaziorako programa estatiskoek ezaguerak.
- Elkarrekin ezberdinetan parte hartze aktiboa (kirol munduan, begirale munduan ...)

CURRICULUM-ak:

- Epea: **abenduak 23** goizeko 12:00ak arte.
- egk@egk.org helbidera bidali / Gaian “**Parte Hartze Teknikaria**” idatzi.
- **Curriculum dokumentua honela izendatu:**
IzenAbizenak.CV_PARTEHARTZE.pdf/doc.
- **Motibazio Gutuna honela izendatu:**
IzenAbizenak.KARTA_PARTEHARTZE.pdf/doc.

- **Hauek izango dira prozesuan kontuan hartu izateko hainbat data:**

Curriculumen bidalketa, abenduaren 23 arte (eguerdiko 12.00ak arte).

Froga idatzia nork egin behar duenaren jakinarazpena, abenduaren 28an.

Froga Idatzia Gasteizen, urtarrilaren 11an.

Elkarrizketa nork egin behar duenaren jakinarazpena, urtarrilaren 13an.

Elkarrizketa eguna, urtarrilaren 16a.

Lanean aritzeko hautatuaren jakinarazpena, urtarrilaren 17an.

Ordezkatzeko pertsonarekin bilerak, urtarrilaren 18 eta 19.

Lanean hasteko data, urtarrilaren 23an.